


FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresak hainbat bazkiderekin egiten du lan, bereziki Euskal Herriko eta Nafarroako unibertsitate publiko eta pribatuekin, hala nola, EHU, Deusto, Mondragon, Tecnun, UNAV eta UPNA, eta baita batxilergoa eskaintzen duten inguruko eskola guztiekin ere.



Alde batetik, unibertsitateen parte hartzea oso garrantzitsua da gure proiektuaren oinarria delako. Unibertsitateek ez dute zertan ekintza berezirik antolatu, gure proiektuak, benetako klaseetara joatea eskaintzen dugulako. Gainera, beraiekin lan egiteak gure enpresaren kalitatea eta segurtasuna bermatzen du, legezko unibertsitatetako klaseak direlako.

Unibertsitate ezberdin askorekin lan egiten dugunez, irakasteko edo lan egiteko erabiltzen dituzten metodoak desberdinak dira. Metodo desberdin hauek ikusteko aukera edukitzea ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu, hain zuzen ere, nahiz eta gradu berdineko klaseak izan, ikasleek metodo ezberdinak ezagutu ditzaketelako. Hizkuntzak ere alda daitezke eta bakoitzak erosoena iruditzen zaiona aukeratu dezake.

Aurretik aipatu dugun bezala, unibertsitateek ez dute ezer berezirik antolatu behar. Beraien zeregin bakarra gure bezeroei saioak entzuteko baimena ematea da, dena legalki egin ahal izateko. Baimen hori gabe ezin izango genuke unibertsitateetan sartu eta gure enpresak ezingo luke aurrera egin. Nahiz eta haientzat ez den lan handia, zerbitzu honek dituen onurak unibertsitateei asko komeni zaiezkiz; aukera hau ematen ez duten unibertsitateek bereizten dira, daukaten hezkuntza eredia ezagutarazten dute, gertutasuna eta gardentasunak haien irudia hobetu dezakete, etorkizunean ikasleak izan daitezkenak erakartzen dituzte, eta abar.

Beste aldetik, batxilergoa eskaintzen duten ikastetxeekin lan egitea ere garrantzitsua iruditzen zaigu. Horrela, bezeroengana iristeko aukera izango dugu. Batxilergoko ikasleak dira bezeroen gehiengoa eta, nahiz eta batxilergoa egiten ez duen beste edonork ere etorri dezakeen, eskolak dira haiengana iristeko modu erraz eta seguruena. Batxilergoko ikasleek, erabaki garrantzitsu bat hartu behar dute eta eskolen bidez proposamen hau zabaltzea baliagarria izan daiteke ikasleen orientaziorako.

Eskola hauen funtzioa nahiko sinplea da. Informazioa zalbaldu behar dute, hau da, gure enpresa aurkeztu eta zerbitzu honetan parte hartzeko aukera dagoela esan eta gure web orria ikasleekin partekatu. Horrela, ikasleek zerbitzua jaso nahi badute edo gehiago jakin nahi badute, web orriaren bidez egin dezakete. Honi esker eskolek ere baliabide gehiago eskaintzen dituzte ikasleen etorkizunerako baliagarriak izan daitezkeenak eta horrek irudia hobetzen laguntzen du.